

# HERNANIK kronika

2004 urtea  
Abenduak 16  
Osteguna  
Alea: 1323  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)

## 'Ahotsak. Emakumeak Historian. Hernani (1936-1970)' liburua aurkeztuko dute gaur

■ Berdintasun Kontseiluak bultzatako beka baten bidez osatu dute liburua ■ Usoa Barruatiabengoa, Garoa Gonzalez, Aritz Rodriguez eta Nerea Elias dira liburuaren egileak ■ Ahozko testimonioekin osatu dute.

GAUR aurkeztuko dute *Ahotsak. Emakumeak Historian. Hernani (1936-1970)* liburua. Liburuaren egileak dira Usoa Barruatiabengoa eta Garoa Gonzalez hernaniarrak eta Aritz Rodriguez eta Nerea Elias. Berdintasun Kontseiluak bultzatuta, Udaletxeko Berdintasun Sailak beka deialdia egin zuen, emakumearen gaiaren bueltan liburu bat ateratzeko eta urtebete pasa eta gero gaur ikusiko da emaitza: hernaniar emakumeen eguneroko bizitzetatik sorrutako historia, gerra garaitik industrializazio bitarteko garaian emakumeek zuten garrantzia azaltzen duena. Aurkezpena gaur arratsaldeko 19:30etan izango da Biterin.

### Fetxa eta izen haundirik gabeko historia

Liburuaren egileek azaldutakoaren arabera, libururako informazioa 1936 eta 1970 urte tartea bizi izan duten emakumeen ahotik atera dute, "eguneroko bizitzan izan zituzten bizieta eta sentimenduetatik" diote. Informazio guzti hori osatu eta testuinguruan kokatzeko artxiboko dokumentuak, liburuak eta artikuluak erabili dituzte.

Egileek azaldutakoaren arabera, historia ahozko testimonioetatik jasotzea garrantzitsua iruditzen zaie: batetik, informazioa aurreneko eskuistik jasotzen delako eta bestetik, idatzizko dokumentuek badituztelako beren mugak eta ez dutelako eguneroko biziaren berri ematen.

### Nekazaritza, estraperloa eta apopilotza

Libura hiru zatitan dago ba-



Usoa Barruatiabengoa, Garoa Gonzalez eta, Nerea Elias, liburuaren egileak.

natuta. Aurreneko zatian gerra garaian emakumeak ne-kazal produktuak ekoizten eta merkaturatzen izan zuten garrantzia azaltzen dute. Bigarren zatian, gerra ondoren arrazionamendu egoeran estraperloan nola aritzen ziren azaltzen dute. Azkeneko zatian, aldiz, industrializazio garaian emakumeek etxeen apopiloak nola harzen zituzten esplikatzen dute.

**Erraz irakurtzeko liburua**  
Libura dibulgatiboa, erraz ulertzeko modukoa, izatea nahi izan dute. Liburuak 130 bat orri ditu eta bi bertsiotan atera dute: euskeraz eta erderaz. 6 eurotan salduko da. □

### *Ahotsak. Emakumeak Historian. Hernani (1936-1970)*

"Nire aita zan jaioa Nafarruan, Arantzan, hemen, Lesaka inguruoko herriko koxkor batian. Eta nire amonak izena zon Margarita, eta zittun harrek bigotiak, bigotiak zittun, baiño bigotiak. Ta behin batian, este, gona luiziak ibiltzen tzittun, txorkatilarkeko gonak, ta somatzen nun, gonan barren batetikan aitzen tzala itten tubo batzuk bezela, eantsitzen trapu batzuk, eitteko tubo batzuk bezela goitik-beraiño, goitik-beraño. Ta jun giñan, jun giñan tremian Irunaño, eta han hartzen genun beste tren txiki bat, tren del Bidasoa famoso hoi, ta jeisten giñan Iantz, ta Iantzitikan gue aittan herriortako baserria eongo zian 6 o 7 kilometro oñiez. Ta han gue amona horri eitten tzioten tubo hoik babarrunez bete, babarrun beltzez bete. Ta geo sesto baten jartzen zioten, ba, sagar batzuk ta arraultza batzuk. Eta goatzen naiz, behin batean, bular haundik, titi haundik zittun gue amonak eta, jarrizkioten bi gazta. Bi gazta, txikiek zien, bi gazta. Sujetadorek etzien izango, eztakitz ze izango zien. Jarri zittun bi gaza, ta nik, 'baiño amona ikusi ingoizute, esangoizute bamazkizula bi gazta', ta 'Isilik eonai motel, ze usteek, karabinerok amona baten titita erreparau behar diela?'. Ta hola ekartzen genun ta aste bateko janarie genun".

Iñaki

### 'Iniciativa legislativa Popularren' bilera

INICIATIVA legislativa Popular taldeak bilera deitu du gaur Hernanin, arratsaldeko 19:30etan. Taldeak lan egiten du herrialde pobreen zorra kentzearen alde, gastu militarrak kentzearen alde eta beharra duten herriko salerosketa justu baten alde. Honen alde egiteko ahalik eta firma gehiena bildu nahi du Iniciativa legislativa Popular taldeak eta nola egin eztabaidatzeko deitu du gaurko bilera. Hernaniar guztiei luzatu die gonbita. □

### Gobernu Batzarra gaur

GOBERNU Batzarra izango da gaur Udaletxean, arratsaldeko 17:00etan. Hitz egingo diren gaiak dira: Akarregin poligonoa eraikitzea baimena, Antziolan bi gune fotovoltaiko jartzeko eskaerak, Okelena baseria eraikitzea baimena, Akarregi auzoko baseria berritzeko baimena eta abal bat itzultzeko eskaera. □

### Ongintzako zuzendaritza batzordea gaur

ONGINTZAKO Zuzendaritza Bartzordea bilduko da gaur arratsaldeko 16:00etan. Bertan hitz egingo dira: 2005eko aurrekontuak, eta Zaharren Egoitzako ileapaindegia zerbitzua adjudikatzea. □

### Sukaldaritza ikastaroa

GURE Etxolan Gabonetako sukaldaritza ikastaroa izango da gaur eta bihar arratsaldeko 17:00etan. Irakaslea izango da Iñaki Ubiria sukaldaria. □

### Xake taldearen bilera

HERNANIKO Xake Taldeak bilera du gaur, arratsaldeko 20:30etan, Aristizabal kaleko lokalean, datorren denboraldiari buruz hitz egiteko. Iazko jokalariei eta nahi duen guztiari luzatu diote deia. □

**Iñaki Alkorta**  
barne diseinua

**opariak,  
konplementuak...**

Kardaberaz 39 - [www.inakialkorta.com](http://www.inakialkorta.com) - 943 335431

**AMEGAR**

Etxe tresnak  
Altzariak

Elektrogailuak  
TB- Bideoak-  
HI-FI-Opariak

Sukalde altzariak

Tel.: 943 55 11 25  
Faxa: 943 55 16 03

**ZINGI-ZANGA**

Florida 54  
943 33 03 97

**ZINGI - ZANGA**

Jatetxea  
Sagardotegia

Florida 54  
943 33 03 97



Hernanin Belodromoko proposamenaren berri emango dute Ezker Abertzaleko kideek.

## 'Orain herria orain bakea' Belodromoko proposamena aurkeztuko du Batasunak gaur

■ Batasunak dio Bakea dela Ezker Abertzalearen lehentasuna, eta helburu hori betetzeako metodologia da proposamena ■ Aurkezpena gaur 19:30etan da Biterin.

**BATASUNAK** *Orain herria orain bakea* proposamena aurkeztuko du gaur Hernanin, Belodromoan aurkezu zuten proposamena, hain zuen ere. Orain lehentasun bat markatu du Batasunak "bake prozesuaren eraikuntza, konfrontazio politiko eta armatuaren eszenatokia behin betikoz gainditzeako gure herrian". Batasunak dio gaur eguneko unea ezin dela ulertu azken 25 urteotako ibilbidea aztertu gabe eta ondorioak hortik atera dituztela. Horrez gain, bere gain hartzen du "Euskal Herrira bake iraunkorra ekarri beharko luken prozesua abian jarri eta egonkortzeko ardura".

### Balantze politikoa

Batasunak trantsizio garaitik orain arterako balantze politikoa egiten du. Hainbat ondo-

rioren artean dio Euskal Herria herri ukatua izan dela: Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoaren onarpen instituzionala ukatzen duelako Frantziar estatuak eta Nafarroa, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoan marko konstituzionala herriaren borondarearen aurka jarri dutelako indarrean.

Gaur egunen, aldaketa politikoaren garaia dela azpimarratzen du Batasunak, Hego aldean trantsizio ereduaren porrota dela eta, eta iparraldean, Frantziako estatuaren sortu den marko politikoari buruzko eztabaida dela eta, desentralizazioan oinarritutako eztabaida.

Eztabaida hau ezker abertzaleak egindako borroka politikaren ondorio dela uste du Batasunak eta herri kontsultante oinarritu behar dela aldaketa politikoa. □

### Batasunaren 7 konpromezuak, gatazkak konpontzeko elkarriketa prozesuari begira

- 1) Gatazkaren sustrieta jotea gatazkaren iturburuei irtenbide demokratikoa aurkitzeo.
- 2) Euskal herritarren hitza errespetatzea.
- 3) Euskal Herritarren hitz ematea era baketsu eta demokratikoan izatea.
- 4) Sentsibilitate politiko ezberdinaren atxikimendu eta errespetua.
- 5) Elkarrizketa prozesuko ezberdintasunak, inposaketarik gabe era baketsu eta demokratikoan konpontzea.
- 6) Bide politiko eta demokratikoak erabiltzea, proiektu politiko guztiak, muga eta murrizketa gabe ahalbideratzeko.
- 7) Euskal Herriaren eraiki beharreko akordioan Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta ONuren Eskubide Zibil, Politiko eta Ekonomikoaren itunak txertatzea.

## ESKOLA KIROLA



Errugbi jokalari gazteak joan den larunbatean, kirolegiko beheko pistan.

Futbola	Taldeak	Boleibola	Errugbia
Benjaminak 4	Elizatxo C- Elizatxo B	Infantil neskak	Benjaminak
Benjaminak 4	Langile A-Langile B	Saskibaloia	Langile-Hirukide
Benjaminak 4	Elizatxo A-Urumea C	Alebin neskak	16-16
Benjaminak 4	Langile C-Urumea D	Alebin mutilik	40-40
Infantil mutilak	Urumea-Landaberri	Alebin mutilik	24-24
Infantil neskak	Urumea-Irun La Salle	Alebin mutilik	70-70
Infantil mutilak	La Salle-Inmaculada	Alebin mutilik	66-31
<b>Boleibola</b>		<b>Esku pilota</b>	
Alebin neskak	Andoaingo-Elizatxo	Alebin mut	Langile C-Urumea A
	Urumea-LSB 1	Alebin mut	10-01
		Alebin mut	5-3
		Alebin mut	5-0
		Alebin mut	2-2
		Alebin mut	1-1
		Alebin mut	5-5
		Alebin neskak	Langile C-Langile A
		Alebin neskak	71-07
		Alebin neskak	79-06

## HITZ BITAN

### ✓ MUSA

**Elur Txorin partidak gaur.** Elur Txoriko mus txapelketak gaur izango du jarraipena eta jokatuko diren partidak dira: Burugain-Otegi/Bilbao-Rekalde; Galarraga-Uzkudun/Arozamena-Lapazaran; Gorka-Iosu/Gorka-Iñaki; Julio-Txatxon/R.Mellado-Joseba; I.M. Polo- J.M. Alvarez/ Javi-Rafa.

### ✓ MUSIKA

**Roberto Yaben Leokan.** Roberto Yaben guitarjole hernaniarrak kontzertua emango du gaur Leoka tabernan, 20:00etan.

### ✓ JUBILATU ETXEA

**Hitzaldia gaur gernu ihesari buruz.** Pixak alde egiteari buruzko hitzaldia emango du gaur Jose Luis Martinek Goiz Eguzkin, arratsaldeko 19:00etan. Zer den, gizonzko eta emakumezkoetan nola eragiten duen, eta sortzen diren arriskuei buruz hitz egingo du besteak beste Jose Luis Martinek eta hitzaldira inguratzen direnen dudak ere argituko ditu adituak.

### ✓ EHNA

**EHNA duten herritarrei deialdia.** Bai Euskal Herriari ekimenak datorren igandean Hernanin Baietz 2000! kanpaina aurkeztuko du. Aurkezpenaren ondoren EHNA duten herritarrek argazkia aterako da. Deialdia egin nahi diete EHNA duten herritar guztiei bertara azaltzeko. Biterin, 12:30etan.

### ✓ ELKARTZEN TALDEA

**Bonobusaren alde firma biltzea gaur.** Elkartzen taldea bonobusaren alde firma biltzen ari da Hernanin eta gaur 16:00etatik aurrera ferian izango dira.

### ✓ EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

**Iruñarako autobusak.** Iruñan EHEk larumbaterako deitu duen ekitaldirako autobusa aterako da Atsegidegitik, 16:30etan. Izen ematea gaur egin behar da Oindi, Txili eta Garinen. □

## JOSEFA ARBE GARRO

ANDREA  
(Eusebio Etxaberen alarguna)  
Atzo hil zen, 85 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.




### -Goian bego-

Seme-alabak: Pepi eta Jose Luis Garcia, Isabel, M<sup>a</sup> Carmen eta Ignacio Alfonso eta Ignacio; bilobak: Nerea eta Jesus, Iñigo, Idurre; ilobak, lehengusuak eta gainera-ko ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arron etor zaiztelako GAUR, OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIETAN, JUAN BATAILATZAILEaren parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2004ko abenduaren 16an



## Juan Bautista Peña Lertxundi

2003ko abenduaren 16an hil zen, 91 urte zituela.  
Juan Bautista gure artefik joan zela urtea bete den honetan, senitartekoek oroigarri meza eskaini nahi diogu eta bertara gonbidatzen zaituztegu ezagutu zenuten guztiak. Aldez aurretik eskerrik asko.

Urteurreneko meza, igandeak, abenduak 26, goizeko 11:00etan euskaraz eta 12:30etan erderaz, San Joan Bataiatzailea parrokiaren.

Hernanin, 2004ko abenduaren 16an

## IRAGARKI MERKEAK

Terreno rurala saldu nahi badezu, deitu: 689 04 07 11

Etxebizitza salgai, Biteri aldean. Berehala sartzeko moduan. Deitu: 616 26 39 15

Alokatzeko 2 pisuren bila nabil. Pisu bat garajerik gabea eta beste pisua garajearekin.

Deitu telefono honetara: 618 280745

Etxebizitza salgai Hernanin zentroan. Deitu: 659 30 82 51

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebral, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

## ZERBITZUAK

### TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYB: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalarri anonimoak: 943 331103
- Alkoholiko anonimo: 943 331103

### FARMAZIAK

- Egunez: Chucla Kardaberaz 48  
☎ 943 551793
- Gauze: Gorospe Andoain. Rikardo Arregi 12  
☎ 943 592415